



2022/2023 denboraldia

25. ZIRKULARRA

INFANTIL TXIKI MUTILEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Infantil Txiki lehiaketa antolatzen du.

1.KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 MULTZOA

- 1 BEHOBIA C.D.
- 2 HONDARRIBIA F.E
- 3 LANDETXA K.T.
- 4 MARIÑO C.D.
- 5 REAL UNION CLUB SAD
- 6 SAN MARCIAL C.D.
- 7 OIARTZUN K.E.
- 8 ALLERRU K.E.

GRUPO 2 MULTZOA

- 1 BETI ONA C.D.
- 2 PASAIA K.E.
- 3 TOURING KE
- 4 TRINTXERPE C.D.
- 5 ANTIGUOKO K.E.
- 6 INTERNACIONAL C.D.
- 7 LENGOKOAK K.E.

GRUPO 3 MULTZOA

- 1 AÑORGA K.K.E
- 2 ARRUPE CHAMINADE C.D.
- 3 IGELEGI DE DONOSTIA C.F.
- 4 ANTIGUA LUBERRI K.E.
- 5 KOSTKAS KE
- 6 MARTUTENE K.E.
- 7 MUNDAIZ S.C.D.
- 8 VASCONIA C.D.

GRUPO 4 MULTZOA

- 1 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE
- 2 EUSKALDUNA S.D.
- 3 HERNANI C.D.
- 4 OSTADAR S.K.T.
- 5 URNIETA K.E.
- 6 ORIOKO F.T.
- 7 AMARA BERRI K.E.

GRUPO 5 MULTZOA

- 1 AIZKORRI GOIERRI F.T.
- 2 BEASAIN S.D.
- 3 IDIAZABAL K.E.
- 4 LAZKAO K.E.
- 5 ORDIZIA K.E.
- 6 TOLOSA C.F.
- 7 BILLABONA K.E.
- 8 DANENA K.E.

GRUPO 6 MULTZOA

- 1 BURUMENDI F.G.
- 2 AMAIKAK BAT K.E.
- 3 LAGUN ONAK C.D.
- 4 ELGOIBAR C.D.
- 5 ANAITASUNA C.D.
- 6 ZARAUTZ K.E.
- 7 ZUMAIAKO F.T.

GRUPO 7 MULTZOA

- 1 ALOÑA MENDI K.E.



- 2 EIBAR S.A.D.
- 3 UROLA K.E.
- 4 ARETXABALETA K.E. UDA
- 5 ARRASATE C.D.
- 6 BERGARA K.E.
- 7 ILINTXA S.D.
- 8 URKI C.D.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Honako hiru fasetan egingo da:

LEHENENGO FASEA

Hasierakoa:

Izen emate librea, baina talde bakarra klub bakoitzeko (53). 53 talde hauek 7 multzotan banatuko dira, 8 taldez osatutako lau eta 7 taldez osatutako hiru, eta lehiaketa itzuli bakarrera jokatu da (7 jardunaldi)

BIGARREN FASEA

Sailkapen-fasea:

Hasierako fasearen sailkapena (7 jardunaldi) bederatzi multzok osatzen dute, eta multzo bakoitza kirol maila eta gertutasun geografikoaren arteko orekaren arabera eratuko da.

Lehenengo fase hau amaitzean, emaitzen arabera lehiaketa bi maila ezberdinetan banatuko da: **Txapeldunen Fasea eta Gipuzkoako Kopa**

HIRUGARREN FASEA

A. TXAPELDUNEN FASEA

Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek (2x9=18), eta hirugarren bost onenak - lortutako puntuen eta jokaturako partiden arteko ratio onena- **(guztira 23 talde)** jokatu dute fase hau 6 taldeko 3 multzotan eta 5 taldeko multzo batean banatuta bi itzulitara (10 jardunaldi). **23 talde hauek, 2023-2024 denboraldian Ohorezko Infantil Mailan parte hartzeko eskubidea dute.**



Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek (1x4=4), aurretik lehiakidea eta zelaia zehazteko zozketa eginda, partida bakarreko finalerdia jokatuko dute (2023/05/21). Partida horietako irabazleak eta galtzaileak, finala (2023/05/28) eta 3-4 postuak, hurrenez hurren.

Finalera iristen diren taldeek eta hirugarren sailkatuak Gipuzkoako futbolaren ordezkari gisa joango dira Euskadiko Errendimenduzko Infantil Txiki txapelketara.

B. GIPUZKOAKO KOPA

Lehiaketa honetan bigarren faseko sailkatu gabeko 30 taldeek hartuko dute parte, 6 taldeko 5 multzotan banatuta, eta aldi berean jokatuko dute bi itzulitara (10 jardunaldi), Gipuzkoako Kopako txapeldunaren titulua eta hutsik dauden zortzi plazak, 2023-24 denboraldiko Ohorezko Infantil Mailako 32 taldeak osatzeko.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatua (1x5 = 5) eta hiru bigarren onenak - lortutako puntuen eta jokatutako partiden arteko ratorik onena - (8 guztira) sailkatuko dira, partida bakarrera, zozketa egin ondoren; final-laurdenak (2023-05-21); finalerdia (2023-05-28) eta finala (2023-06-04) partida bakarrera eta zelai neutralean, Gipuzkoako Kopako txapelduna izendatzeko,

Gipuzkoako Kopan sailkatutako 8 talde hauek, Txapeldunen Fasean sailkatutako 23 taldeak eta Realak, Batzar Nagusiak hala erabakita, 2023-24 denboraldiko 32 taldez osatutako Infantilen Ohorezko Mailako Liga eratzeko eskubidea dute.

3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partiden iraupena 70 minutukoa da, 35 minutuko bi zati eta 10 minutuko atsedenaldea, eta **zazpi aldaketa** egin ahalko dira. **Errendimendu hastapeneko lehiaketa honen heziketa izaera dela eta, aktan azaltzen diren jokalarri guztiak partidaren ahal den denbora gehiena jokatu beharko dute. Zelaira sartzen den azken jokalarriak ezingo ditu 20 minutu baino gutxiago jokatu eta ezingo da zelai jokoan sartu partidaren bigarren zatiaren 15.minutua baino beranduago. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da.**

4.DEIALDIA

Batzar Nagusian heldutako akordioaren arabera, **taldea osatzen duten jokalarrien %80k deialdian eta partidaren bertan egon beharko du (gehienez 18 jokalarri).** Arau hau



betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da, salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.

5.JOKALARIAK

2010ean jaiotakoek soilik jokatu ahalko dute.

6.LIZENTZIAK

Eskola Kirolaren Programan jasotako lehiaketak direnez, parte-hartzaileek bi erakundeen logotipoak izango dituen eskola-lizentzia izango dute, eta federazioan bertan bideratuko dira, lehiaketa hasi aurretik "Kirol lizentziak" sistemaren bidez, azterketa medikua eta mutualitateko alta egiaztatu ondoren.

Kategoria horretako (Infantil Txiki) lizentzia dutenek bakarrik parte hartu ahal izango dute Infantil Txiki mailako lehiaketa honetan, eta ezingo dute parte hartu Infantilen Ohorezko Mailako edo Infantilen 1. Mailako lizentzia dutenek. **Aurrekoa betetzen ez bada, bidegabeko lerrokatze gisa zigortuko da.**

Talde bakoitzak **gehienez 20 lizentzia** izango ditu. Hala ere, denboraldian zehar dauden altak eta bajak konpentsa daitezke.

Izen-ematea:

Izen-ematea **Federazioko Intranetetik** egingo da.

Asistentzia estaldura:

Lehiaketa eskolartekoa den arren, **Espainiako Futbolarien Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean** afiliatu beharra dago.

Azterketa medikoak:

Lizentzia tramitatu aurretik, kirolariak **futboleko aritzeko gaitasuna duela egiaztatu beharko da.**

7. BALOIA

Baloia 5 zenbakiduna izango da, eta ez da onartuko 4 zenbakidun edo areto futboleko baloirik.

8.ORDUTEGIAK



Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

9. DIZIPLINA ARAUDIA

Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, diziplina-ahala honela gauzatzen da:

- A) Lehenik eta behin, lehiaketen antolaketa teknikoki garatzeko ardura duen kirol-federazioko diziplina-batzordeari.
- B) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari. Batzorde horren ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta errekurtoa jarri ahal izango da, aplikatzekoak diren jurisdikzio-arauek arabera.

10. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeke eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.



Donostia, 2022ko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General

